

gogoetak eta proposamenak. 1999-2000

herri eta Udalen
ekarpena
bakearen
eraikuntzan

herri eta Udalen ekarpena bakearen eraikuntzan

Aurkezpena

1999.ean zehar eta, gutxienez, 2000. urterarte, Udalen eta udal-jardueraren garrantzia bereziki nabarmenduko da. Eta hau ez da gertatuko bakarrik 1999.eko ekainaren 13ko udal-hauteskundeengatik, baizik eta azken hauek bakea lortzeko eta eraikitzeko prozesu konplexu bezain erakargarrian egingo direlako. Horregatik, tentagarria suertatzen da herrietako ekintzak eta bake-prozesua modu eraikitzaile batean harremanetan jartzea.

Errepaso moduan, gogora dezagun hauteskunde hauen ondoren eta hilabete batzuetan zehar, udal-gobernuak osatzeko garaia datorrela. Hauen osaketak gure herri eta hirietako lau urtetako ekimen programen behin-betiko erredakzioa eta Udalen jarduera politikoaren egituraketa ekarriko du, dagokien batzordeen bidez. 1999. urte amaieran eta zenbait kasutan 2000. urte hasieran, Udal berrien aurrekontuak eztabaidatu eta erabakiko dira mende aldaketaren lehen urterako.

Udal korporazioen eta hauen jarduera politikoaren berrikuntza edo aldaketa prozesu hau herritarrek gertuen duten instituzioan ematen da. Behar bada honengatik, uneak eskaintzen duen aukeragatik, baina baita ere gaurkotasunak berak eta murgildurik gauden testuinguru zalantzarriak eskaintzen digun interpelazio erreal eta erakargarriagatik, zentzuzkoa dirudi Udalek, auzoek eta herri eragile edo bizilagunek bakeari egin diezaioketen ekarpena zein izan daitekeen galdetzen hasia.

Hau da argitalpen honen xede nagusia, gai hau gogoeta eta proposamenen bidez lantzea. Jakina, elkarrik ez du inolako errezetarik banatzeko asmorik, bere asmoa gai honek sortzen dion ardura elkartrukatzea eta honen inguruan eztabaida emankor bat bultzatzea da. Normalean, bake-prozesu batean gauzak ez dira gertatzen hasieran diseinatu diren bezala, eta emaitza ez da izaten txostengile bakar baten ideia aparta. Aurrerapen errealak proposamen, ekimen edo ideia desberdinak batzearekin egiten dira. Gauzak ikusteko modu desberdinen kontraste uztartzailea da prozesua hoberen bultzatzen duena.

Horregatik, txosten hau lehen lan bat besterik ez da, abiapuntu bat, edo nahiago bada, hasierako proposamen bat. Lehenengo zatian, «marko teorikoa» izenburua daraman atalean, bakea gizartetik, gure hirietatik, herrietatik edo auzoetatik, herrietako eta Udaletako elkarleen-egiturarekin eta herritarren partehartzearekin eraikitzeko garrantziaren inguruko gogoeta orokor batzuk egiten dira.

Bigarren zatian, «Proposamen zehatzak» izenburua daraman zatian, bideragarririk, emankorrik eta, aurrera eramateko zailtasun berezirik ez duten aukeratutako proposamen zerrenda bat jasotzen da. Proposamenen menua irekia da, eta ez du oso zehatza

izan nahi. Honek esan nahi du, ez duela bake-prozesuan parte hartzeko edo laguntzeko udal-ekimen potentzial guztia jasotzeko asmorik. Noski, kontuan har daitezkeen eta hartu behar diren beste proposamen asko dago. Hau lehen bilduma bat da, ea honek ekimenen kalitatea eta kopurua handitzea ahalbidetzen duen.

Ez da ulertu behar proposamen sail itxi eta zatiezin bat bezala. Txosten honetan hamar iradokizun aurkezten dira, eta jakina, banan bana eztabaidatu eta burutzeko pentsatu dira. Are gehiago, har daitezkeen erabakietatik at, txosten hau herriek eta Udalek bake-prozesuari egin diezaioketen ekarpena zein den eztabaidatzeko baliogarria suertatzen bada, bere helburua beteko du.

Txosten eta eztabaida honi elkarrik eman nahi dion izaera irekia eta dinamikoa bultzatzeko, orri berezi bat gehitu diogu nahi duenak bere iritziak, iradokizunak, kritikak edo proposamenak bidal ditzan. Hau, zalantzarik gabe, proposamenak eta ekimenak aberrasteko eta hobetzeko, eta bake-prozesua errazteko bide bat da. _____

marko teorikoa

gizarte-partaidetzari buruz

Gero eta argiago, gatazkak konponbide baketsu eta positiboaren inguruko teoriko nagusiek bat egiten dute bake-prozesuetan gizarte-partaidetzaren nahitaezko garrantzia azpimarratzerakoan. Esandakoa nahikoa ulerterreza da. Alegia, gatazka, indarkeria, enfrentamendu eta zatiketen egoera luze batek arraila sakonak irekitzeaz gainera eztabaida horren protagonista eta aktore nagusien artean, arraila horiek arrastoa uzten dute eta espazioa irabazten joaten dira ia sare sozial osoan. Logikoki, bake-prozesu bati heltzen zaionean, akordioen eta bizikidetzaren berreraikuntza ez da espermentatu edo barneratu behar politikaren eliteetan soilik, gizartearen eremu guztietan zabaldu behar du baita ere.

Nazioarteko esperientziek erakutsi dutenez, zenbait gatazkatan eliteen arteko elkarrikeria edo negoziazioetan oinarrituriko prozesuak gizartearen oinarritik oso urrun geratu dira. Asintonia hau gertatzen da gizarteak ez duelako parte hartzen elkarrikerian eta, batez ere, akordioak zehazten. Honen ondorioz, gizarte-sektore bakoitzak ez ditu egiten bere «negoziatzaileek» egindako kudeaketa eta lorturiko emaitzak. Eta gertaera hauetatik eratorzen den emaitza bezala, egoera berria hauskorra izan ohi da, oinarriko zimendu sendorik ez duelako.

Partaidetzaren garrantziari buruzko gogoeta teorikoaz gain, kontua da, gutako bakoitzaren inguruan tesi hau bermatzen duten datu praktikoa eta errealak daudela. Sufrimendua, iraina, laidoa, zatiketa, inkomunikazioa, heriotza, eraso, gartzela, tortura... bizi izan diren esperientzia ikaragarriak dira, ez bakarrik Parlamentu batean edo alderdi politikoen egoitza nagusietan, baizik eta gizartearen oinarrian batez ere: gure herrian, gure auzoan edo gure kalean bertan.

Esperientzia gogor hauen multzo honek, gure gizartearen hainbat sektore esanguratsuetan «etsaiaren» irudia barneratzea eragin du, «okerrena merezi duenaren» zentzuan, zentzu belikoan. «Etsai» hori ez da soilik alderdi bateko edo besteko buruzagi nagusia, baizik eta batzutan, «etsai» hori harekin identifikatzen den auzokidearengan, zinegotziarengan edo lankidearengan pertsonalizatzen da. Honelako testuinguru batean eta gizarte osasuntsu bat osatzeko, beharrezkoa da harremanak berreraikitzea.

Bestetik, oraintxe bertan politikaren kupulan ikusi nahi duguna buruzagi aurkakoen behin-betiko bostekoaren argazkia baldin bada, logikoa dirudi gure herrian bertan ere urratsak ematen joatea, argazki hori gure herrian ere osatzen joan dadin, piskanaka baldin bada ere.

Ondorioz, esan dezakegu, bake-prozesu batek arrakastatsua izan dadin masa kritikoa eta herritarren partaidetza eraginkorra behar duela. Bake-prozesuak nahitaez kupulan erakitzen dira baina baita gizartearen oinarrian ere, goitik beherako zirkuituetan, behetik gorakoetan eta zeharkakoetan ere. Hau da, bederen, elkarrik abiapuntuztat hartzen duen ueste sendoa. Agerian utzi nahi duguna da herrietan ere bake-prozesuaren beharra dagoela, edo gutxienez, bake-prozesua bizitzeak onura ekar dezakeela.

Udalaren eta herriko elkarten sarearen egitekoari buruz

Askotan, Udala, bere Pleno Aretoa edo bere zinegotziak gatazka politikoaren erakusgarri eta protagonistak izan dira herrian. Hor hauteman ahal izan du herritarrak gatazka-
ren muinean aurkitzen den tentsio politikoa. Gauzak honela, Udala berreraikuntzaren, berrel-
kargunearen eta partaidetza prozesuaren funtsezko erreferentzi-puntua izan daiteke.

Egia esan, udal-instituzioak bake-prozesua herrian bizitzeko aukera eskaintzen du. Batez ere, eta lehen-lehenik, instituzio oso hurbila delako, herritarrak ikui dezake; bigarrenik, hurbiltasun horretan tradizio politiko eta sentikortasun guztiak daudelako ordezkatura; eta hirugarrenik, ordezkartza politiko hori eta herriko elkarten sarea elkar ezagutu eta harreman zuzena dutelako.

Udalek aukera paregabea eskaintzen diote bake-prozesuari. Askotan, demokrazia partehartzailearen garrantzia azpimarratzen da. Kasu horretan eta bake-prozesuari begira, Udalak partaidetza aktibo eta demokratikoarentzat bide ezinhobea izan daitezke. Udal-egiturak eta honek auzokideekin eta herriko elkarten sarearekin dituen harremanek bitarteko ezinhobeak eskaintzen dituzte xede horretarako.

Une historiko honetarako, Udala herritarren partehartzerako eta bake-prozesuaren ekarpena bideratzeko bitarteko gisa hartzea litzateke, bake-prozesua herriari ekartzeko eta herria bake-prozesura eramateko. Izan ere, koiuntura historiko honetan Udalak paper garrantzitsua joka dezake bakea bultzatzen, bizikidetzaren berreraikitzen eta gizartean adiskidetzeko-kultura sendotzen.

Gogoeta honek edozein herritarrek egin dezakeen honako galderari erantzuna ematen dio: «bake-prozesuan, zein dira partehartzeko, informatzeko, galdetzeko, iritzia emateko edo proposatzeko dauzkadan bideak?». Kasu honetan erantzuna hau da: horietako bide bat Udala izan daitekeela. Udalak sarritan, herriz gaindiko proiektuen arrazoibideak jasotzeko eta erakusketa publikorako bidea diren bezala, kasu honetan herriz gaindiko bake-proiektuaren zerbitzu hau eskain zezaketen.

proposamen zehatzak

Ondoren azaltzen diren proposamenek edo iradokizunek orientazio berdina dute helburuari, irizpideari, metodologiari edo ebaluazioari dagokienez. Horregatik, bigarren zatiaren lehen ataletan eta proposamen bakoitzaren mamian sartu aurretik, guztietan ageri diren elementuak azalduko dira.

Bestetik, proposamenak laburki deskribatu dira. Inork proposamen hauen inguruan datu gehiago bildu nahi izanez gero, gizarte mugimendu honekin harremanetan jar daiteke.

1. Helburuak

1.1. Helburu nagusia

- Herri eta Udaletako jardueraren bidez bake-prozesuari lagundu.

1.2. Helburu zehatzak

- Bake-prozesuan herritarren inplikazio eta partehartze eraikitzailea erraztu. Bake-prozesua herriko errealitatean integratu eta hau bake-prozesuan.
- Elkarrizketa, adiskidetzea eta gizarte-aniztasuna integratzearen kultura zabaldu eta hedatu herrian, bakea eraikitzeko oinarri nagusienetakotzat hartuz.
- Distentsioa, humanizazioa eta oinazea pairatu duten guztiekin elkartasuna bultzatu herrian.
- Herriko bizikidetzea soziopolitiko hobetu bake prozesua dela-eta.

2. Irizpideak

2.1. Irizpide nagusia

- Bake-prozesuari laguntzeko udal esparruan garatzen diren ekimen eta jarduerak izaera guztiz eraikitzailea eduki behar dute.

2.2. Irizpide zehatzak

Ardatz hau udal-jardueran lau irizpide orientatzaile aplikatuz gara daiteke:

- Erraztu: komunikazioa eta distentsioa eskaini.
- Elkarlanean aritu: bereizten gaituenaren gainetik biltzen gaituena bultzatu, guztion arteko konponbideak bilatzeko.
- Ez baztertu: soziologiaren, eta politikaren ikuspegitik alde guztiak bilduko dituzten ekimenak diseinatu.
- Demokrazian sakondu: arrazonamendu, printzipio, prozedura eta helburu demokratiakoak ezarri.

3. Bake prozesua lagunduko duen herri komunikaziorako metodologia

Ondoren proposatzen diren ekimen guztiek komunikazioa erabiltzen dute baliabide gisa. Orohar, herrian aurkako jarrera eta ikusmoldeak dituztenen arteko alde anitzeko komunikazio prozesu eta denboraldi bat zabaldu nahi dute ekimen horiek. Nahitaez, honek gure elkarrizketa-

ohituren berrikuspen kritiko bat egitea eskatzen digu.

Normalean, elkarrizketaren ideia *arrazoia eta egia gure alde daudela eta erruak eta errudunak besteak direla erakusten eta konbenzitzen* saiaten garen jarduerara mugatzen dugu. Beti, «alde» asko dagoela kontuan hartzen badugu, elkarrizketa horrela ulertzearen baliozgarritasuna zalantzan jar genezake. Era berean, herri mailako komunikazio anitza hone-lu ulertuko bagenu, hemen luzatuko ditugun proposamenen bideragarritasuna zalantzarria litzateke.

Ez dugu nahi hemen metodologia bat zehatz-mehatz azaldu. Aurkako jarreraren arteko elkarrizketa modu emankorrean garatzen laguntzeko lan ugari idatzi da. Zentzu honetan, elkarrik «hiru txandatan-los tres turnos de diálogo» izena duen metodologia garatu eta erabili du arrakasta handiz, eta nahi duenak eskuragarri du.

Dena den, komunikazioa norabide banatzaile edo eraikitzaile batera zuzentzea ahalbidetzen duen abiapuntua azaltzea egokia litzateke, nolabait metodologia egokiaren gakoa zein izango litzatekeen, alegia. Aukera hau elkarlan baterako lehen elkarrizketari ekiten diogun unean sortzen da; kasu honetan, herri edo udal mailan. Aurkariaren jarrerekin desberdintasunak azpimarratzen saiaten den elkarrizketa, eztabaida, komunikazio eta elkarlan eredu ez da batere emankorra lan bateratu bat lortzeko. Bat ez datozen, banatzen eta bereizten gaituzten ideiak izan ohi dira nagusi horrelakoetan.

Desberdinen arteko elkarlan eremu bat lortzeko elkarrizketa, eztabaida, komunikazio eta lankidetzaren ereduak aurkako jarreraren artean bat datozen ideiak azpimarratzen saiatu behar du, abiapuntu metodologiko gisa, nahiz eta ideia horiek xumeak izan. Positibo, interesgarri, osagarri edo bateragarria deritzogun guztiak, huskeria bat izan arren, elkarlanean aritzeko balio handiko oinarria osatzen dute.

Ohiko komunikazio ereduak gainditzean dago gakoa. Bazterketa eta bereizketa indartu eta desberdintasunak eta hauen inguruko eztabaida txalotzen duen ereduak, alegia. Horren ordez, elkarrizketa bateratzailean oinarritutako ereduak jarri behar da indarrean, bat datozen puntuak azpimarratzeak ematen duen indarrarekin.

4. Ebaluazioa

Aurkezten diren proposamen guztiak, batzuk edo bat onartuz gero, urtebeteko epean garatzeko pentsatuak daude. Honek esan nahi du denbora hori igaro ondoren ebaluazio sakon bat egin beharko litzatekeela, ekimenekin jarraitu, aldatu edo bertan behera uztea erabakitzeko.

Komenigarria litzateke, edozein kasutan, bake-prozesua laguntzeko garatuko diren udal-jarduerak aldizkako ebaluazio iraunkorra izatea, eta baita ohiko Udal Batzarretan iruzkin eta azalpenen gai izatea ere.

5. Proposamenak

5.1. Bake-prozesurako udal-batzordea

5.1.1. Deskribapena

Udalaren egituraren barruan udal-batzorde bat eratzea proposatzen da, herrian bake-prozesua bultzatzeko partehartzea ahalbidetu dezan. Batzorde hau alderdi politiko guztien ordezkariak osatuko lukete eta gizarte eragile eta herritarrei irekia egongo litzateke.

5.1.2. Proposamenari buruzko iruzkinak

Organu honen egitekoa herrian har daitezkeen neurri, ekimen eta jarduera egokiak zehaztea izango litzateke, bi ikuspegitik begiratuta: herritarren partehartzea eta bake-prozesuari ekarpena. Aldi berean, organu honi legokioke bi adierazle hauen inguruan aldiro ebaluazioa egitea.

(Udalaren batek bake-prozesurako udal-batzordea eratzeko erabakia hartuko balu, logikoki organu hau izango litzateke hurrengo lerroetan egiten diren proposamenak aurrera eramateko egokiena. Kontrako kasuan, ekimen hauek Osoko Bilkuratik edo Gobernu Batzordetik bidera daitezke).

5.2. Bake-prozesurako herri-dinamizatzailea

5.2.1. Deskribapena

Bake-prozesuan herritarren partehartzea eta ekarpena bermatzeko dinamizatzaile bat izendatzea proposatzen da, herrian aurrera eramango diren ekimenak koordinatu eta bultzatuko dituena. Funtzio hauek beteko lituzkeen pertsonaren kontratazioa lan-programa batean oinarrituta egin beharko litzateke. Toki batzuetan, eskualderako pertsona bakarra kontrata dezakete zenbait Udalen hitzarmenaren bidez.

5.2.2. Proposamenari buruzko iruzkinak

Pertsona hau Udalak bere kontrataziorako ezartzen dituen meritu objektiboan arabera aukeratu beharko litzateke, bereziki baloratu bere izaera independentea edo bere egokitasunari buruzko kontsentsua Udalean ordezkatuak dauden sentiberatasun politiko guztien artean. Bere funtzioen artean egongo litzateke ere, herrian bake-prozesua bultzatzeko egokiak iruditzen zaizkion neurriak proposatzea udal-organuei. Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, edo baita Foru Aldundiek ere, pertsona honen kontratazioan lagun lezakete, honetatik sor litezkeen gastuetan laguntzeko aurrekontuen zati bat izendatuz.

5.3. Bake-prozesurako herriko foroa

5.3.1. Deskribapena

Bake-prozesurako herriko foro bat eratzeko deialdia egitea proposatzen da, herrian presentzia duten alderdi politiko guztiak eta herriko elkarten sare guztia partehartzera gonbidatuz. Lanean hasteko ideia honako hau izan daiteke: «gure herritik bake-prozesuan parte hartu eta ekarpenak egin ahal izateko hausnarketa eta proposamenak».

5.3.2. Proposamenari buruzko iruzkinak

Horrelako foro baten lan-plangintza entzuketara eta elkarlanerako metodologia batek gidatu beharko luke, herriko elkarrizketa esperientzia hau emankorra izan dadin. Zentzu horretan, arreta berezia ipini beharko litzateke moderatzaile taldearen aukeraketan. Herrian, elkarrizketa-prozesu multilateral baten esperientzia erreala gauzatzea litzateke helburua, bere oztopo eta aurrerapenekin. Pertsonak, euren jarrera kontrajarriak, jarrera hauetatik eratorritako arazoak eta ondoren bideratu daitezkeen konponbideak errealitatearekin harremanetan jartzeko aukera eskaintzen du.

5.4. Gatazka eta indarkeriak eragindako herriko arazoak aurre egiten laguntzeko neurriak

5.4.1. Deskribapena

Azken bi hamarkada luzeetako gatazka eta indarkeriak herrian esperientzia traumatikoak eragin dizkien pertsona eta taldeei laguntza, errekonozimendua eta ordaina eskaintzeko neurriak hartzea proposatzen da. Neurri hauek hartzeko, aurrez finkatutako

epe jakin batean, herrian kaltetuak izan diren kasuen zerrenda kronologiko bat egiteko ikerketa bat burutzea proposatzen da.

5.4.2. Proposamenari buruzko iruzkinak

Neurri hauek ez lirateke ulertu behar beste erakunde batzuetatik ezarri daitezkeen alternatiba edo bikoizketa bezala, baizik eta ekimen osagarri eta elkarlanekoak bezala, eta betiere, udal erakundeak dituen eskuduntzari eta bitartekoei egokitu beharko dute. Neurri hauek, bereziki, indarkeriazko ekintzen biktima eta euren familiartekoentzat, preso eta euren senitartekoentzat eta bestelako kaltetu eta errepresaliatuentzat bideratu beharko lirateke.

5.5. Adiskidetze kulturaren hedapena

5.5.1. Deskribapena

Bake-prozesuaren esanahia azalduko duten adituen testu motz, erraz eta didaktikoak aukeratu eta hamabostean edo hilean behin herri guztiarentzat argitaratu eta buzoneatzea proposatzen da. Herritarrei baliabide teorikoak eskaintzean datza, horrela hurrengo gai hauetan sakondu eta jantzi daitezten: (1) desberdintasuna integratzeko eta elkarlanerako jarrerak garatzeko metodologia eta baliabideak, (2) gatazken konponbide positiboa, eta (3) zatiketa politiko sakonak dituzten gizarteetan bizikidetzak ahalbidetzen duten jokabide erakitzaileak.

5.5.2. Proposamenari buruzko iruzkinak

Hasieratik testu guztiak aukeratzea proposatzen da, gero bildumak koherentzia izan dezaten. Argitalpena herriko ekimenen berri emateko, bake-prozesuaren egoerari buruzko informazioa emateko edo iritzi desberdinak plazaratzeko ere erabil daiteke. Zentzu honetan, oso interesgarria litzateke herriko komunikabideek eskaintzen dizkiguten aukerez baliatzea.

5.6. Bake-prozesuaren inguruko Jardunaldiak

5.6.1. Deskribapena

Urtean behin, edo egokia ikusten den aldizkakotasunarekin, Jardunaldi batzuk antolatzea proposatzen da. Bake-prozesuari buruzko informazio eta jai-ekimenak martxan jartzea alegia, bukaera emateko ekitaldi jendetsu bat eginez. Aukerak ugariak dira, eta gure herrian horrelako ekitaldiak antolatzen dugun esperientzia ere zabalaz denez, ez da beharrezkoa ikusten ekitaldiak zeintzuk izan daitezkeen aipatzea.

5.6.2. Proposamenari buruzko iruzkinak

Ardura berezia jarri beharko litzateke aurreikusten diren ekitaldiek izaera anitza, bateratzailea, baikorra eta eraikitzailea izan dezaten eta bide batez etorkizunari zuzenduak egoteko. Herriko elkarten-sarearekin, ikastetxeekin eta interesatuta leudeken erakundeekin antola litezke.

5.7. Ekarpunen postontzia

5.7.1. Deskribapena

Bake-prozesuari buruzko ekarpenak jasotzeko hainbat postontzi jartzea proposatzen da. Ekarpeneak iruzkinak, iradokizunak, kritikak, proposamenak, aukerak, salaketak eta eskaerak izan daitezke, bake-prozesuari zein herriari zuzenduak. Balio handiagoa izan dezaten, ekarpen hauek errespetuzko tonu propositibo eta ahalik eta modu zehatzenean egitera animatu behar da herritarra. Ekarpenak jasotzeko telefono bat jartzeko aukera ere kontuan har liteke.

5.7.2. Proposamenari buruzko iruzkinak

Ekimen honek herritarrari bake-prozesuan parte hartzeko modu zuzen, erraz eta eskuragarria eskaintzen saiatzen da. Gutxienez entzuna izateko, eta agian kontuan hartua eta erantzuna izateko aukera eskaintzen dio. Udalari, herriko dinamizatzaileari edo Batzordeari dagokie jasotako ekarpenen sistematizazio- eta hauen sintesiaren aldizkako argitarapen-lana egitea.

5.8. Txosten informatzaileak

5.8.1. Deskribapena

Udalek, horretarako herrian ezarritako bide desberdinen bidez jasotzen dituzten bake-prozesuari buruzko datu, informazio eta iritziak aldiro erakunderik garrantzitsuenei eta alderdi politikoetako zuzendaritzei helaraztea proposatzen da.

5.8.2. Proposamenari buruzko iruzkinak

Honako hau da herria, bertako eragile sozialak eta kaleko herritarra bake-prozesuko zuzendaritza politiko eta instituzionalarekin harremanetan jartzea ahalbidetzen duen modua. Hauxe da Udala zubi-erakunde bilakatzen duen bidea. Txosten hauen bidez, bere herrian jasotzen dituen datuak gorantz bidaltzen ditu, eta bestalde, aldiroko argitalpenaren bidez edo beste modu batzuen bidez, berriro ere informazioa auzokideei itzultzen die.

5.9. Herrietako esperientzien koordinazioa

5.9.1. Deskribapena

Herrietako esperientzien arteko koordinazio eta elkartrukaketa bat egitea proposatzen da, bai herriko dinamizatzaileen bidez edo baita egokia ikusten den beste edozein bitarteko erabiliz. Ez litzateke baztertu beharko herri desberdinen arteko ekimen bateratuak burutzea.

5.9.2. Proposamenari buruzko iruzkinak

Bake-prozesuari laguntzeko herrietako ekitaldiak ugaritzen diren heinean, udal-erakundeetan oinarritutako bakearen eraikuntzako esperientzia partehartzailea eratzen ariko ginateke. Hau dela-eta, esperientzien koordinazioak balio bikoitza du: esperientzien elkartrukaketa berak soilik duen balioa, eta esperientzia hauek guztien batuketak eta bateratzeak izango lukeen pisu soziologiko eta politikoa.

5.10. Herri-kontsulta

5.10.1. Deskribapena

Udalek modu ezohikoan herriari kontsulta egiteko aukera jaso dezatela proposatzen da, betiere, oso beharrezkoa eta egokia ikusten den kasuetan aurrera eraman ahal izateko.

5.10.2. Proposamenari buruzko iruzkinak

Aukera hau banakako aukera izan daiteke eta Udal batek bere kabuz hartu, edota hainbaten edo guztien artean koordinatuta egin. Aukera honek udal-erakundeak bake-prozesuan parte hartzeko eta bultzatzeko duen konpromisoa erakutsiko luke herritarren aurrean eta, ziurrenik, herritarren partehartze handia lortuko luke.